

## APÉNDICE



### **An b o t o**

Ira-ebatera badoaz mendimutillak aldatz gora. Goian, urdin urdin agiri da Zerua; bean, bedar iñuntzez bustiriko, zelaia. Egun-sentia da: choriak, sasi-artean, ta zugatzetatik chio egiten dabe. Urrun, entzuten da iturriaren murmur eten bagakoa. Poza zabalduta dagoala dirudi lurraren ganean. Egunaren asierea, uda barriaren antzera, alaiata biotzarentzat pozgarria da.



Eguna aurrera doa. Eguzkia, laño, estalduten da. Ira-ebaten dabilzanak eztabe len legez oi egiten. Eguzkia illunduten daben lañoak biotzera dakar beste illuntasun bat. Anbotora begiratuten dabe nekezale gazteak, eta ikusten dabe odei baltz batek andik urteten dabela, ta diño an doiala *Anbotoko andrea*, ta bere ondorean gauza negargarriak etorriko direala. Chimistearen argiak urdinduten dauz arpegiak. Ondorean burrundara-ots ikaragarriak entzuten dira. Bere zulutik urten dau Anbotoko andreak, eta ioan da Oiz mendira. Ekacha ganean da. Badator euria; langiñak, izututa, chaboletan sartuten dira. Biotza samintasunez beterik daroe; Anbotoko andreak zer zorichar ekarriko etedeusku, itanduten dabe.



Igaro da ekacha. Euria gelditu da. Zerua urdinduten doa barriro. Eguzkiak urratuten dauz lañoak, eta iñoz baiño ederrago agertuten dira zelaia. Chaboletatik urten da badoaz mendian beera ira-ebatera etorri zireanak. Anbotoko andrea biurtu da barriro bere betiko zulo-ra. Laño-artetik agiri da Kurutzea, gizonen artean anaitasuna zabaldu-teko. Pozgarri pozgarrizko chilin otsa entzuten da, ta lurretik Zerura eskari isiltu bat goratuten dala dirudi. Menderatuta dago Anbotoko andreak indar kaltegarria; Kurutzearen indar pozgarri bein bere galduko eztana, ganean. Maitetasunaren irudia da orain gure inguruan daukagun ezttitasuna.

(VERSIÓN CASTELLANA)

## A m b o t o

Allá van cuestas arriba los mozos montañeses á la siega del helecho. Encima aparece el cielo azul intenso; debajo, la llanura de yerba empapada de rocío. Es el amanecer; trinan los pájaros entre las zarzas y los árboles. A lo lejos se oye el murmullo no interrumpido de la fuente. Parece que sobre la tierra está desparramada la alegría. El comienzo del día, al modo de la primavera, alegre es, y llena de gozo el corazón.

—

El día sigue su curso. El sol es cubierto por las nubes. Los que siegan el helecho no entonan canciones como antes. La nube que oscurece el sol pone también sombrío el corazón. Miran á Amboto los jóvenes obreros, y ven que de allí sale una negra nube, y dicen que allí va la *Dama de Amboto* y que tras de ella han de venir sucesos que arrancarán lágrimas. La luz del rayo colorea los rostros de violado. Después se oye el espantoso trueno. La *Dama de Amboto* ha salido de su antro y se ha dirigido á la montaña de Oiz. La tempestad está encima. Viene la lluvia; los trabajadores, espantados, se refugian en las chozas. Llevan el corazón lleno de angustia; ¿qué desdicha nos acarreará la *Dama de Amboto*? se preguntan.

—

Ha pasado la tempestad. Ha cesado la lluvia: De nuevo va poniéndose azul el cielo. El sol rompe las nubes, y aparecen los llanos, hermosos como nunca. Los que vinieron á segar helecho salen de las chozas y marchan monte abajo. La *Dama de Amboto* ha vuelto de nueva á su antro secular. Por entre las nubes se descubre la Cruz, para difundir entre los hombres la fraternidad. Se oye el dulce sonido de la campana, y parece que de la tierra al Cielo se eleva silenciosa oración. Vencido está el letal poderío de la *Dama de Amboto*; el dulce y perdurable poder de la Cruz está encima. El gozo que ahora nos envuelve es la imagen del amor.

